

Xabier Mendiguren Elizegi



Gonzalez Txabarrri, Txiki Benegas edo Jaime Ignacio del Burgorekin? Alde batera,

hobe elurteak martxoaren hirua arte irauingo balu. Elurrari begira geratzen zarenean, bete egiten dizu gogoa, bete edo hustu; ez dakit nola esan baina uxatu egiten dizkizu behintzat kezka eta goganbeharrak, amnesia goxo batean murgilduko bazina bezala. Amnesia eta amnistia, horra jatorri greziar bereko bi hitz, normalean inoliz elkarrekin agertzen ez direnak. Bata bestearekin erabiltzeak, bizi ohikoak dira, berriz, horien kide arruntak: ahaztu eta barkatu.

«Ez dut ahaztuko; ez barkatuko», esan berri du Enrique Mujikak; ulergarria da min hori bere egoeran, noski, baina bat baino gehiago harritu da hitz horien gogortasunaz, ez-barkatzearen jabetza beste batzuenaz, zela zirudielako edo; badakizue, askotan entzun dugu «herriak ez du barkatuko». Beren nahietara errenditu ezcan oinazea konpartitu beharra etorriko zela abisatu zuten batzuek orain dela zenbait hilabete, eta ari da bai, gogotik banatzen; okerrena, zenbat eta gehiago banatu, norberak daukan oinazea ez dela pittin bat ere gutxitzen.



Elurraren bertuteak

Elur etemalaren zuriaren pareko» du izenburua Mikel Antzaren ipuin eder batek, eta, Euskal Herri ia osoa kapa zurri horretan bildu-^{er} esnatu den egunotan, elurraren dohainez aritu naiz pentsatzen. Dena estaltzen baitu elurrak: bideak, belardiak, tellatuak, autoak, mendiak, eta baita hauteskunde-kanpaina bera ere: nor gogoratu da egunotan Joxe Juan

ez ezitzen; aitzitik, gero eta handiagoak egiten dira zauriak, gero eta urrunago konponbideak.

Epelean elkartu, gogoeta egin eta zauriak ixteko aro egokia dirudi elur-garaiak. Gure arteko ezberdintasunek ere txikiagoak ematen dute elur beraren pean. Sutondora gonbidatzen du, lasaitasunera. Elurretan posible ematen du berriz ere hutsetik hasia, udaberria jaoko dela pentsatzea, kris-tau izan gabe ere barkazioarekin amets egitea...

Ezin ordea. Elurraren zuriak bost minutu baizik ez du irauten. Berrehala gatoz gu, geure botatzarrekin zapaltzera. Handik pis-ka batera, lokatz gris, zikin, irriskorra besterik ez da geratuko. Elurrak eragindako anaitasun ametsak putzu batean geratu dira galduta, kotxeak pasatu ahala gurpil azpian zapaldu eta zipriztinak botatzeko.

Ez guztiz halere: mendi-tontorretan oraindik ere garbi-barbi ageri da, elur etemalaren zuria, gure itxaropenaren izpia. Horrenbeste mendizale daukagun berri honetan, ez al digute ekarriko denontzako gurdikada bat elur, ea bere dohainak kutsatzen dizkigun...